



ARGITU PROIEKTU PILOTUA


Proiektuaren bukaerako emaitzak

AURREKARIAK

ARGITU proiektu pilotua 2015eko martxoan jarri zen martxan eta proiektuan izena eman zutenekiko bi helburu nagusi zituen:


- Aurrezte eta eraginkortasun energetikoaren alorrean herritarrak kontzientziatzea eta **parte hartzen duen komunitateak aurrezte lortzea.**
- **Kontsumitzaileek energiaren datuak ezagutzeko duten eskubidea nabarmentzea, kontsumoari buruz erabaki egokiak hartu ahal izateko.**

Proiektuan **400 etxebizitzak** eman zuten izena, Gipuzkoako **50 udalerritakoak**. Etxebizitza horietako 345etan neurgailu bat instalatu zen argindar kontsumoak jasotzeko eta gainerako 55 etxeetako datuak Tolargi Tolosako Udal Argindar Banatzailearen bidez lortu ziren zuzenean. Neurgailua instalatu zen etxeetan mini-auditoria bat egin zen eta lortutako erantzunetatik, modu orokorrean, zenbait datu atera ditugu proiektuan parte hartu duten etxeei eta bertan bizi direnek energia gaiekiko duten jarrerari buruz.




ARGITU KOMUNITATEA OSATU DUTEN ETXEEN ETA BERTAKO BIZTANLEEI BURUZKO ZENBAIT DATU, PROIEKTUA MARTXAN JARRI ZENEAN, 2015EAN, BILDUTAKOAK.

- Proiektuan parte hartu duten etheen % 83a **pisuak** ziren eta gainerako %17a **etxe bakarrak** edo baserriak.



- Proiektuan izena emandako etxe guztietatik %92k **isolamendu eskasa** dute.




ARGITU

ENERGIA NEURTU ETA AURREZTU MIDE LA ENERGÍA Y AHORRA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Medio Ambiente
y Obras Hidráulicas



- Proiektuan parte hartu duten etheen % **30ak jada energia berriztagarriak erabiltzen ditu.**
- Partaideen %**100i gustatuko litzaioke** energia berriztagarriak erabili ahal izatea etorkizunean.







ENERGIA NEURTU ETA AURREZTU MIDE LA ENERGÍA Y AHORRA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Medio Ambiente
y Obras Hidráulicas




- Proiektuan parte hartu duten etheen % 39ak ez daki bere etxetresna elektrikoek zein eraginkortasun maila duten.
- %26ak eraginkortasun maila baxuko etxetresna elektrikoak ditu.
- %35ak eraginkortasun maila altu edo ertaineko etxetresna elektrikoak ditu.

- Argitu komunitateko etheen %78tan proiektua hasterako jada jarrita zituzten “stan-by”-ari dagokion kontsumoa ekiditeko erregeletak.





- Proiektuan parte hartu duten etxeetan zein motatako argiteria duten aztertuta, esan dezakegu **bataz beste**, etxe hauetan argiteria mota bakoitza honela banatzen dela: etxekeo argiteriaren %33 **bonbila halogenoak** dira, %21 **kontsumo baxuko bonbilak**, %18 **LED** teknologiadun argiteria, %13 **inkadeszentziakoak** eta %7 **fluoreszenteak**.






ENERGIA NEURTU ETA AURREZTU MIDE LA ENERGÍA Y AHORRA


Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Medio Ambiente
y Obras Hidráulicas



- **Ura berotzeko** etxe hauetan erabiltzen dituzten energia iturriei erreparatuta, %65ak gas naturala erabiltzen du, %13ak argindarra, %9ak energia berriztagarriren bat, %8ak propanoa eta %5ak gasolioa.



- **Etxeko berokuntza sistemari** dagokionez, %60ak gas naturala erabiltzen du etxea berotzeko, %17ak argindarra, %12ak energia berriztagarriak, %7ak propanoa eta %4ak gasolioa.



Datu hauetatik ateratzen diren ondorio nagusiak:

- ARGITU programan parte hartu duten etxebizitzetako biztanleak, orokorrean, **izena eman zuten unetik jada kontzientziatuta zeudela energiaren gaiarekin, eta sentsibilizatuta zeudela halaber energia-gastua murriztu beharrarekin**, bai arrazoi ekonomikoak, bai ingurumenari lotuak edo beste batzuk tarteko.
- Kontuan hartuta programan parte hartzeko ezinbestekoa zela etxebizitzan interneterako konexioa edukitzea eta erabiltzaileak web tresnak erabiltzen ohituta egotea, esan dezakegu tresna hau **Gipuzkoako etxeetako sektore oso jakin bati iritsi zaiola**.

PROGRAMA MARTXAN EGONDAKO HILABETEETAN LORTUTAKO EMAITZAK

Programaren iraupena 12 hilabeteetakoa izan da, 2015ko irailetik 2016ko irailera, izan ere, nahiz eta neurgailu gehienak lehenago instalatu, aurrezpen programa eta hileroko buletin bidalketa 2015eko irailean hasi zelako.

- Programan parte hartu duten 400 etxebizitzaren artean, **hileko 5.866 Kwh aurreztu dira, guztira 70.391 Kwh programa indarrean egon den urtean.**
- Batzaz beste etxe bakoitzean **%5,87ko murrizketa** lortu da.
- Guztion esfortzuari esker **atmosfera 32,65 tona CO₂ isurtzea ekidin dugu.**
- **2.815 zuhaitzen landatzearen parekoa** izan da hori.
- Gipuzkoako etxebizitza guztietan argindar kontsumoan murriztapen portzentaje hori lortuko bagenu, aurreztutako energiarekin probintziako errepide eta bidegorri guztiak argiztatu ahal izango liriateke ia-ia hiru urtez.

Hortaz...


**ZORIONAK LORTUTAKO EMAITZENGATIK ETA
ESKERRIK ASKO EGINDAKO ESFORTZUAGATIK!**

ARGITU ENERGIA **NEURTU** ETA **AURREZTU**
MIDE LA ENERGÍA Y **AHORRA**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Medio Ambiente
y Obras Hidráulicas



Lortutako murriztapen portzentajeak udalerriz-udalerrri, erabiltzaile gehien zituzten udalerrriak aztertuta.



Kontuan izan behar da, aurretik aurrezpen neurriak martxan zituzten etxeetan zailagoa dela Argiturekin aurrezpen portzentaje altuak lortzea, aurrezteko duten potentziala txikiagoa delako.



ENERGIA **NEURTU** ETA **AURREZTU** **MIDE** LA ENERGÍA Y **AHORRA**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Medio Ambiente
y Obras Hidráulicas



PROIEKTUAREN GARAPENEAN IZANDAKO ZAILTASUNAK

NEURGAILUEKIN

- **Neurgailuen funtzionamenduarekin arazo tekniko ugari izan ditugu:** routerrarekin lotura galtzea, kalibrazio arazoak, gainberotzeak, pila agortzeak, eta antzerakoak.
- Guzti hauek medio, instalatutako **345 neurgailuetatik, 159 ordezkatu egin behar izan dira eta gainera, beste 29 bisita egin behar izan dira etxeetara** neurgailuekin izandako inzidentziak konpontzeko. Hauetaz gain, telefono eta mezu elektronikoen bidez ere artatu dira erabiltzaileen beste hainbat gora-behera.
- Honek, kasu askotan **etxeetako kontsumo datuak galtzea** suposatu du eta **baita erabiltzaileak programarenganako zuen fidakortasuna galtzea ere.**

WEB PLATAFORMAREKIN

- Erabiltzaile askok eskatu du argindar kontsumoa murritzeko aholkularitza **etxe bakoitzera egokitzea, pertsonalizazio maila altuagoa** izatea plataformak.
- Horri erantzuteko **web plataforma egokitzeko zailtasunak izan dira, egin beharreko aldaketak lantsuak zirelako eta denbora asko behar zelako hauek garatu ahal izateko.**

ARGITU PROIEKTU PILOTUTIK ATERA DIREN ONDORIOAK

- Argindarraren kontsumo **datuak begiratzea eta ulertzea lagungarria da kontsumitzaileak erabaki egokiak hartzeko**, bai aurrezpenerako bai eraginkortasun energetikorako.
- **Tresna baliagarria** izan da ARGITU, baina energia-kontsumoen datuak erabiltzaile kopuru handi bati ematea, horretarako koadro elektrikotik barrura instalatutako neurgailu ez ofizialak erabiliz, **teknikoki prozesu konplexua izan da**.
- Ahalegin hori **zeharo probetxugarria** gertatu da, horri esker **kontsumo murriztapen bat lortu delako** eta gainera **etxeetako argindar kontsumoa neurtzeko egungo sistemaren gaineko ezagutza** eskuratu duelako Foru Aldundiak, eta honen bitartez baita gipuzkoar komunitateak ere. Kontsumitzen den energia zehatz neurtzea ez da erraza, baina kontsumoetan aurrezkoa lortzeko helburuz egitea are zailagoa gertatzen da. Orain askoz garbiago dugu etorkizunean eragin beharreko puntuak zein diren.
- Esperientzia honetatik lortutako balio nagusia da herritarrengandik hurbilen dauden erakunde publikoek **politikak eta tresna askotariko eta sinpleak bultzatu behar dituztela, herritarrei laguntzarren bere energia-kontsumoari buruzko datuak eskura ditzaten, eta datu horiek egoki interpretatzeko jarraibide batzuk finka ditzaten -oso oinarrizko jarraibideak badira ere- bere energia-faktura murriztu ahal izateko**, bai maila ekonomikoan bai ingurumenaren ikuspegitik. Horregatik Departamentua etxeetan energia aurrezteko aholkularitzarako hurrengo ARGITU kanpaina ari da diseinatzen, 2017ra begira.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Medio Ambiente
y Obras Hidráulicas



Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako departamenduak **eskerrak eman nahi dizkizue ARGITU** komunitateko etxe guztiei, lagundu duten udal, eskualde eta herritarren elkarte guztiei, **TOLARGI** enpresa banatzaileari eta proiektu hau gauzatzen lagundu duen lantalde osoari, kanpainen izan duten partaidetzagatik. **Mila esker!**

Energiaren aurrezpenari, eraginkortasun energetikoari eta energia berriztagarriei buruzko informazioa:

www.gipuzkoaingurumena.eus